Ebazpena, Justizia Administrazioko zuzendariarena, Donostiako barruti judizialean Bulego Judiziala, udalerrietako Justizia Bulegoak eta bere elkarteetako eta Erregistro Zibilaren bulego orokorra ezartzeko data zehazten duena

Donostiako barruti judizialeko Justizia Administrazioko langileen lanpostu-zerrendak onartzen dituzten Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko maiatzaren 6ko Aginduek, hirugarren apartatuan jasotzen dute bulego berrien ezarpen-data Justizia Administrazioko zuzendariaren ebazpen bidez ezarriko dela.

Aurreikuspen horren arabera, karrerako funtzionarioak lanpostu berrietara egokitzeko prozesua eta bitarteko funtzionarioak birkokatzeko prozesua amaitu ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Zehaztea **2026ko azaroaren 30ean** Donostiako barruti judizialean Bulego Judiziala, udalerrietako Justizia Bulegoak eta horien elkarteak, bai eta Erregistro Zibileko Bulego Orokorra ere, ezarriko direla.

2. artikulua.- Erabakitzea karrerako funtzionarioen kargu-hartzeak formalizatzeko data **2026ko azaroaren 30a** izango dela.

3. artikulua.- Erabakitzea bitarteko langile guztiek **2026ko azaroaren 29an** utziko dituztela beren lanpostuak.

4. artikulua.- Erabakitzea birkokatze-prozesu honetan lanpostua lortu duten bitarteko langileek **2026ko azaroaren 30ean formalizatu** beharko dutela izendapena.

5. artikulua.- Karrerako funtzionarioek zein bitarteko langileek Justizia Atariaren bidez formalizatu beharko dute kargu-hartzea, www.justizia.eus atarian.

6. artikulua.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen ez duenez, haren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8ZQC-TVT0
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS | 2026/11/27 11:00:16